


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2004KO MARTXOA

Euskal AEko industria-jarduera % 5,1 igo zen 2004ko martxoan

2004ko lehen hiruhilekoan, % 3,7ko hazkundera gertatu da, aurreko urteko aldi beraren aldean.

2004ko martxoan, % 5,1 hazi zen Euskal AEko industria-produkzioa, 2003ko hil beraren aldean, balio absolutuetan, EUSTATEk landutako datuen arabera. Balio homogeneotan, urte arteko aldakuntza % 2,8koa izan da, aurtan martxoak 2003an baino lanegun bat gehiago baitzuen. Urteko lehen hiru hilabeteko hazkunde metatua % 3,7koa da, balio absolututan, aurreko urteko aldi beraren aldean, eta % 2,7koa urte arteko alderagarritasuneko balio doitutun.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1998-2004



Iturria: EUSTAT

2004ko martxoan, urte arteko aldakuntzarik positiboenak, balio absolututan, sektore hauetakoak izan ziren: *petrolioa fintzea* (% 69,8), *energia elektrikoa, gasa eta ura* (% 38,1), *ehungintza eta jantzigintza* (% 10,6) *material elektrikoa* (% 9,3) eta *kautxua eta plastikoa* (% 6,4) sektoreetakoak. Aitzitik, urte arteko tasarik negatiboenak izan dituzten sektoreak honako hauek dira: *ez-metalezko industria* (% -9,2), *metalezko eta ez-metalezko meak* (% -9,0), *larruaren eta oinetakoen industria* (% -5,4), *kimika-industria* (% -2,5) eta *bestelako manufaktura-industria* (% -2,9).

Urteko lehen hiru hilabeteak hartuta (2004ko lehen hiruhilekoa, 2003ko hiruhileko beraren aldean), hazkunde-tasa handieneko sektoreak honako hauek dira: *petrolioa fintzea* (% 48,0), *energia elektrikoa, gasa eta ura* (% 28,9), *ehungintza eta jantzigintza* (% 4,2) *kautxua eta plastikoa* (% 4,1) eta *metalgintza eta metalezko gaiak* (% 3,4). Aitzitik, hiruhilekoko tasarik negatiboenak honako sektore hauetan izan ziren:

metalezko eta ez-metalezko meak (% -11,1), larruaren eta oinetako en industria (% -11,0), bestelako manufaktura-industria (% -7,0) ez-metalezko industria (% -5,8) eta kimika-industria (% -2,1) sektoreetan.

Ondasunen helburu ekonomikoari begiratuz egiten den sailkapen berriaren arabera, 2004ko martxoan, nabarmen igo zen urte arteko tasa *energia* adarrean (% 45,4). *Bitarteko ondasunetan* (% 2,3) eta *kontsumo-ondasunetan* (% 2,5) ere gehitu zen, baina neurritsuago (*kontsumo ez-iraunkorreko ondasunetan* % 3,2 igo zen eta *kontsumo iraunkorreko ondasunetan* % 1,0, baina *ekipo-ondasunetan* % 0,1 jaitsi zen). Lehen hiruhilekoan, eta aurreko urteko aldi bereko datuekin alderatuta, *energia* adarrak % 33,5eko hazkunde metatua du, *bitarteko ondasunek* % 2,9ko igoera izan dute, eta *ekipo-ondasunek*, aldiz, % 0,5 egin dute atzera. *Kontsumo-ondasunak* ere jaitsi dira (% -3,3), eta honela banatzen da jaitsiera *kontsumo iraunkorreko ondasunen* eta *kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* artean: % -4,7 eta % -2,5, hurrenez hurren.

Lurraldeka, indize orokorraren urte arteko bilakaerek erritmo ezberdinak izan dituzte, eta, balio absolututan, % 7,0 igo da Gipuzkoan, % 4,1 Bizkaian eta, azkenik, % 3,8 Araban. 2004ko lehen hiru hilabeteak hartuta, hazkunde metatuko tasa handienak Gipuzkoari dagozkio (% 4,7), bigarren tokian Araba dago (% 3,3) eta, azkenik, Bizkaia % 3,9ko gehikuntza izan du.

Taula: 2004ko MARTXOA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	2004ko martxoko aldakuntza-tasak		2003ko martxoko aldakuntza-tasak	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	5,1	2,8	12,5	4,3
Araba	3,8	1,6	15,8	6,5
Bizkaia	4,1	2,1	11,2	3,7
Gipuzkoa	7,0	4,5	12,0	3,8

(*) jaiegunen eraginetatik zuzenduta

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso

Tel.: +34-945 017 514. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es